



## **GIZARTE LAGUNTZAKO 24 ORDUKO KRISI ZENTRORAKO LOKAL BAT SALEROSKETAREN BIDEZ EROSTEKO LEHIAKETA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZEN AGIRIA.**

### **1. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea.**

Plegu honetan aipatzen den erosketa Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak sexu indarkeriaren biktima diren emakumeei etengabeko arreta integrala emateko da.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea foru erakunde autonomoa da, eta bere ondasunen erregimenari dagokionez, Arabako Lurralde Historikoaren Ondareari buruzko martxoaren 27ko 11/2019 Foru Arauan xedatutakoari lotuta dago.

### **2. Kontratuaren xedea eta beharrak. Eskuratu beharreko higiezinaren baldintzak.**

Kontratua Sexu Indarkeriaren Biktimentzako 24 orduko Arreta Integraleko Zentroa azpiproiektuaren barruan sartzen da. Zentro hori Next Generation EU funtsek finantzatzen dute Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan, 22. osagaiaren barruan (“zaintzaren ekonomiarako talka plana eta berdintasun eta inklusio politiken indartzea”) eta C22.I4 neurriaren barruan (Indarkeria Matxistaren kontra Babesteko Espainiako Plana). Azpiproiektuak Kontseiluaren Betearazpen Erabakian (Council Implementing Decision-CID) eta 22. osagairako eta C22.I4 neurrirako xedapen operatiboetan (Operational Arrangements-OA) oinarrituta esleitutako mugarriak eta helburuak lortu beharko ditu.

Lizitazio honen xedea da, plegu honetan jasotako betekizunekin, Arabako Foru Aldundiak salerosketa bidez Gasteizen hiri lurzoruan dagoen eta antolamendutik kanpo ez dagoen lokal bat eskuratzeko lehiaketa prozedura arautzea, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari atxikia izateko, sexu indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta integrala emateko zentro iraunkor gisa erabil dezan.

Kontratatzeko jarraitu beharreko prozedura Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean (BEEP (Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa - NGEU Funtzak) finantzatutako jarduketetarako xedatutakoari lotuta dago.

Baldintza agiri hau, galdagarria izan dadin, kontratuari erantsiko zaio, eta nahitaez izango du kontratu izaera.

#### **Higiezinaren baldintzak**

Kontratuaren xedea da honako baldintza hauek bete behar dituen higiezin bat eskuratzeko:

- Eremu publikotik zuzeneko sarbidea izatea. Ahal dela, beheko solairuan kokatuko da, nahiz eta hori ez izan eska daitekeen baldintza bat.
- 250 metro koadroko azalera eraikia izatea, lokalean kokatu nahi den zentrorako behar diren elementuak har ditzakeena, hala nola bulego independenteak, itxarongelak eta bilera gelak, bainugela independenteak eta office gunea.
- Okupatzailerik, errentaririk eta prekaristarik gabe egotea, horretarako gaitzen duen titulu juridikoarekin edo gabe.
- Lizitaziora aurkezten den pertsonaren edo pertsona natural edo juridikoen izenean inskribatuta egotea jabetza erregistroan.



- Kargarik gabe egotea, eta berehala eskrituratzea eta Jabetza Erregistroan inskribatzea ahalbidetzen duten baldintza juridikoetan. Esleipendunari dagokio horretarako beharrezkoak diren erregistro eragiketak egitea, hala nola elkartzek, banantzek edo eskatzen zaion beste edozein.
  - Egunean izatea erkidego gastuak, hornidura guztiak, estatuko, tokiko edo autonomia erkidegoko zergak, batez ere OHZ eta hiri hondakin solidoak biltzeko tasa.
  - Lokalean emango diren zerbitzuen izaeragatik, ingurune seguru batean kokatuta egon beharko du. Hori dela eta, kanpoan geratuko dira biztanle gutxi dituztelako, hiri azpiegiturarik ez dutelako edo antzeko beste edozein arrazoi dela eta segurtasun gutxikotzat jotzen diren eremuetan dauden higiezinak.
  - Lokalak bide publikotik zuzeneko sarbidea izan beharko du, eta, era berean, irisgarritasunari buruzko oinarrizko baldintzak bete beharko ditu, edo, halakorik ezean, gutxieneko esku hartze batekin baldintza horiek betetzeko moduan egon beharko du.
  - Lokalaren kokapenagatik eta ezaugarriengatik, lokalaren jarduera garatzeko nahitaezko udal lizentzia lortzeko beharrezkoak diren baldintzak bete beharko ditu.
- Arestian adierazitako moduan adierazitako baldintzaren bat betetzen ez bada, prozeduratik kanpo geratuko da. Baztertzea Arkitektura Zerbitzuak txostena egin ondoren ezarriko da.

### **3. Kontratuaren araubide juridikoa, errekurtsioak eta jurisdikzio eskuduna.**

Arabako Lurralde Historikoaren Ondareari buruzko martxoaren 27ko 11/2019 Foru Arauak, ondare negozioen araubide juridikoari buruzkoak, 44. artikuluan ezartzen duenez, ondasunei eta eskubideei buruzko kontratuak, hitzarmenak eta gainerako negozio juridikoak, prestaketari eta esleipenari dagokienez, Ondareari buruzko Foru Arauak eta hura garatzeko xedapenek arautuko dituzte, eta, arau hauetan aurreikusten ez den guztian, sektore publikoko kontratuen legeriak. Bere ondorioak eta suntsiarazpena Foru Arau honek eta zuzenbide pribatuko arauak arautuko dute. Bigarren atalean esaten jarraitzen du ondasun eta eskubideen gaineko kontratuak, hitzarmenak eta gainerako negozio juridikoak itun askatasunaren printzipioaren mende daudela. Administrazio publikoak, interes publikoa lortzeko, egokitzat jotzen dituen klausulak eta baldintzak hitzartu ahal izango ditu, betiere antolamendu juridikoaren edo administrazio onaren printzipioen aurkakoak ez baldin badira.

Ondare negozioak egiteko prozedurari dagokionez, OFAren 52. artikuluan, ondasun higiezinak eskuratzeari buruzkoan, ezartzen du foru arau honen 1.2 artikuluan foru erakundeek beren helburuak betetzeko behar dituzten ondasun higiezinaren gaineko jabetza eta bestelako eskubide errealak kostu bidez eskuratzeko erabakia Foru Gobernu Kontseiluak hartuko duela, ondarearen arloan eskumena duen saileko foru diputatuak proposatuta. Era berean, 2. paragrafoak xedatzen du, oro har, eskuraketa lizitazio publiko bidez egingo dela, esleipen irizpide bat edo gehiago erabilita, salbu eta zuzenean eskuratzeko erabakitzen bada artikuluan bertan adierazitako inguruabarretako bat gertatzen denean, eta eskuratzearen kasuan, diziplina agiri honetan ezarritakoa betetzen ez bada.

Bestalde, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) 9.2 artikulua xedatzen duenez, haren eremutik kanpo geratzen dira, besteak beste, salerosketa kontratuak eta antzeko negozio juridikoak, arau berezien bidez arautzen baitira (SPKLren 26.2 artikulua). Hala ere, SPKL osagarri gisa aplikatuko da sor daitezkeen zalantzak edo hutsuneak ebazteko (SPKLren 4. artikulua).

SPKLren 44.6 artikulua araberak, SPKLren 44. artikulua bigarren apartatuan aurreikusitako egintzak edo jarduerak, prozedura honetan ematen badira, administrazio bidean aurkaratu ahal izango dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera.



Jurisdikzio ordena zibilak izango du alderdien artean ondorioei eta azkentzeari buruz kontratu honen inguruan sortzen diren eztabaidak ebazteko eskumena.

#### **4. Kontratazio organoa.**

Foru Gobernu Kontseilua da plegu hau onartzeko eta lehiaketa eta kontratua ebatzi eta esleitzeko kontratazio organoa.

Kontratazio organoak honako prerrogatiba hauek ditu: kontratua interpretatzea, kontratua betetzeak sortzen dituen zalantzak ebaztea, interes publikoko arrazoiengatik kontratua aldatzea, suntsiaraztea erabakitzea eta suntsiarazpenaren ondorioak zehaztea, baldintza agiriei eta aplikatu beharreko araudiari lotuta. Gai horri buruz hartzen dituen erabakiak betearazleak izango dira, hargatik eragotzi gabe kontratistak aurkaratzeko duen eskubidea.

Era berean, bere eginkizunak oro har betetzeko eta, bereziki, kontratazio prozedura izapidetzeko beharrezkotzat jotzen dituen kanpoko edo barruko txosten guztiak eskatu ahal izango ditu.

#### **5. Lizitazio oinarria.**

Lizitazioaren oinarritzko tasa 550.000,00 eurokoa izango da, BEZa barne.

Lizitazio tasa higiezin erosteagatik ordaindu beharreko gehieneko zenbatekoa da. Ez dira sartzen notariotza edo erregistro gastuak. Aplikatzekoa bada, prezioak BEZa barne hartuko du, baina kontzeptu horri dagokion zenbatekoa bereizita adieraziko da eskaintzan.

Lizitazio tasa ezin izango dute lizitatuzaileek beren eskaintzan gainditu. Bestela, prozeduratik kanpo geratuko da.

Kontratuaren prezioa ez da berrikusiko.

#### **6. Fidantza**

1.000,00 euroko behin-behineko fidantza ezartzen da.

Fidantza honako modu hauetakoren batean eratu ahal izango da, eta ondoren adierazten diren agirien bidez egiaztatuko da:

- Dirutan; kasu horretan, Arabako Foru Aldundiak hainbat erakundetan irekita dituen kontu korranteetako edozeinetan sartu izanaren frogagiria aurkeztu beharko da.
- Banku abalaren bidez, Foru Aldundiko Finantza Kudeaketako Zerbitzuan sartu izanaren egiaztagiraren bidez egiaztatuko dena.
- Kauzio aseguru kontratu baten bidez ere eratu daiteke. Kontratua kauzioaren arloan lan egiteko baimena daukan aseguru entitate batekin egin behar da.

Esleipendunak salerosketaren formalizazioa betetzeari lotuta geratuko da bermea. Era berean, proposamen bat arrazoirik gabe kenduz gero, fidantza konfiskatu egingo da, baldintza agiri honen 18. atalean ezarritakoaren arabera beste zigor batzuk aplikatzeari kalterik egin gabe. Bermea iraungi egingo da, eta salerosketa formalizatu ondoren itzuliko zaie lizitatuzaileei.

#### **7. Kontratatzeko gaitasuna. Kaudimena.**

##### **Gaitasuna**

Kontratatzeko ahalmena dute pertsona natural edo juridiko espainiarrek edo atzerritarrek, baldin eta higiezinaren jabariaren jabe edo titular badira eta baldintza-agirian aurreikusitako baldintzak betetzen



badituzte, izaera juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa badute, mota guztietako kontratueterako eta, bereziki, salerosketarako gaitasun orokorrari buruzko Kode Zibilean jasotako arauen arabera, eta SPKLren 71. artikuluan adierazitako kontratatzeke debekuren batean sartuta ez badaude eta zerga-arloko zorrik ez badute.

Lizitaziora bere kabuz edo baimendutako hirugarren pertsona batek ordezkatuta jo ahal izango da, agiri bidez egiaztatutako ordezkaritza ahalmen nahikoen bidez. Prozedura izapidetzen ari den bitartean eta kontratua formalizatu aurretik enpresa ondarea edo jarduera adar bat fusionatu, zatitu edo eskualdatzeko eragiketaren bat gertatzen bada, enpresa lizitazailearen oinordekoa izango da, prozeduran duen posizioan, sozietate xurgatzailea, bat egitearen ondoriozkoa, zatiketaren onuraduna edo enpresa ondarearen edo dagokion jarduera adarraren eskuratzaila, baldin eta kontratatzeke gaitasunaren eta debekurik ezaren baldintzak betetzen baditu, eta esleipen prozeduran parte hartu ahal izateko baldintza agirietan eskatzen den kaudimena egiaztatzen badu.

Beharrezkoak diren jarduteko gaitasunik ez duten pertsonekin egindako kontratuak edo SPKLren 71. artikuluko kontratatzeke debekuetako edozeinetan sartuta daudenak erabat deusezak izango dira.

### **Kaudimena**

Kontratu pribatua denez, kaudimena justifikatutzat joko da honako agiri hauek aurkeztuta:

- Higiezinaren titulartasuna egiaztatzea, Jabetza Erregistroko ohar simple baten bidez. Ohar horretan, higiezina behar bezala inskribatuta agertuko da, lizitazailearen izenean, eta ez du kargarik.
- Higiezinaren katastro ziu-tagiri deskribatzailea eta grafikoa.
- Titularren erantzukizunpeko adierazpena, jabetza eskrituran eta erregistro inskripzioan adierazitako inguruabarrei eusteari buruzkoa (2. eranskina).
- Higiezina errentari, okupatzaile eta prekaristatik gabe dagoela dioen erantzukizunpeko adierazpena (2. eranskina).
- Higiezinak mota guztietako horniduren eta Estatuko, tokiko edo Autonomia Erkidegoko zerga eta tasen ordainketak egunean dituela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena (2. eranskina).

## **8. Espedientea izapidetzea, esleitzeko prozedura, eskaintzak aurkezteko lekua eta epea, irekiera, eskaintzen onarpena eta esleipen irizpideak.**

### **8.1 Esleipen prozedura.**

Higiezinaren erosketa prozedura irekiaren bidez izapidetzen da, plegu hauetako edukiaren arabera.

Dokumentazioa hemen eska eta kontsulta daiteke:

- Ondare Zerbitzua (Samaniego, 14-4. solairua, 01008 Gasteiz). Karatula eta Baldintzen Agiriak eta aurkezteko prozedurarekin zerikusia duena: [patrimonio.finanzas@araba.eus](mailto:patrimonio.finanzas@araba.eus)
- Arabako Foru Aldundiaren web orrian ([www.araba.eus](http://www.araba.eus))

Argibideak bide telematikoz jaso ahal izango dira helbide elektroniko honetan:

[patrimonio.finanzas@araba.eus](mailto:patrimonio.finanzas@araba.eus)

Era berean, telefono bidezko kontsultak egin ahal izango dira 945 18 18 18 telefonoan (54124 luzapena). 54124.

Eskatzen diren argibideen erantzunak ez dira inola ere lotesleak izango Arabako Foru Aldundiarentzat.



Higiezin bakoitzeko eskaintza bakarra aurkeztu ahal izango da. Arau hori ez betetzeak prozeduratik kanpo uztea ekarriko du.

## **8.2 Proposamenak aurkezteko modua, lekua eta epea.**

Deialdi honetan parte hartu nahi duten pertsonak edo erakundeek beren eskaintzak edo proposamenak aurkeztuko dituzte Arabako Foru Aldundiaren Erregistroan, Probintzia Plazako 5. zenbakian. Gutun azal hau izenpetuta eta identifikatuta egongo da: "24 orduko krisi zentrorako lokala erostea". Eskabidean, halaber, prozeduran parte hartzeko eskabidea jasoko da, 1. eranskin gisa erantsitako ereduaren arabera, eta bi gutun azal itxi. Gutun azal horiek "A" eta "B" izena izango dute, betiere behar bezala sinatuta eta errotulatuta, kontratuaren izena eta lizitatzaillearen izena, helbidea, telefono-zenbakia, posta elektronikoa eta, hala badagokio, ahalduaren izena adierazita.

Proposamenak postaz aurkeztu ahal izango dira, eta, kasu horretan, lizitatzailleak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Erregelamenduan xedatutakoa bete beharko du, bidalketaren eguna eta ordua posta bulegoan jasota, eta, nolana ere, iragarkian adierazitako epearen barruan, eta kontratazio organoari eskaintza epea amaitu baino lehen bidali dela jakinarazi beharko dio, helbide elektronikoa honetara: [patrimonio.finanzas@araba.eus](mailto:patrimonio.finanzas@araba.eus)

Aipatutako erregistroan edo postaz eta iragarkian adierazitako epearen barruan aurkeztu ez diren eskaintzak lizitaziotik kanpo geratuko dira. Eskaintzak aurkezteak esan nahi du lizitatzailleak baldintzarik gabe onartzen duela plegu honetako klausula guztien edukia, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe. Lizitatzaillei egindako jakinarazpenak, ahal dela, bitarteko elektronikoen bidez egingo dira.

Gutun azal bakoitzak honako agiri hauek izan beharko ditu:

### **A GUTUN AZALA:**

Honako izenburu hau izan beharko du: A gutun azala, proposamen ekonomikoa.

Eskaintzaren prezioa baino ez du izango, 7. eranskineko ereduari egokituta.

### **B GUTUN AZALA:**

Honako izenburu hau izan beharko du: B gutun azala. Dokumentazioa.

Hona hemen edukia:

- 6. atalean aurreikusitako fidantza eratu dela egiaztatzen duen agiria.
- Plegu honen 2. eranskinean agertzen den ereduaren arabeko erantzukizunpeko adierazpena, data eta sinadurarekin. Bertan, lizitatzailleak proposamenak aurkezteko epea amaitzen den unean higiezin salmenta kontratatzeke legez ezarritako baldintzak betetzen dituela, eta SPKLren 71. artikuluan kontratatzeke debeku gisa adierazitako inguruabarretako batean ere ez dagoela, edo zergapetuta edo bateraezintasun kausaren batean sartuta, eta, era berean, higiezina okupatzaileen zamarik eta kargarik edo prekaristarik gabe dagoela, edozein titulu dela eta.
- Jabetza erregistroaren ohar soila, lizitatzaillearen titulartasuna eta kargarik eza jasotzen dituen.
- Eraikinean sartzeko baimena. 3. eranskina

Esleipen proposamena zein lizitatzaileraren alde egin eta lizitatzailleak baldintza horiek betetzen dituela egiaztatuta beharko du esleipena egin aurretik, horretarako eskatzen zaizkion agiriak aurkeztuz (10. klausula).



### **Balorazio irizpideei buruzko dokumentazioa.**

Higiezina deskribatzeko memoria bat izango du, 8.4.2 eta 8.4.3 ataletan adierazitako esleipen irizpideak kontuan hartuta, eta honako hauek jasoko ditu: irizpide horiek betetzen direla egiaztatzen duten agiriak, planoak, katastroko ziurtagiriak, zerbitzuak edo hornidurak daudela egiaztatzen duten egiaztatagiriak, irisgarritasun txostenak eta higiezinaren kontserbazio egoera, garraio publikoko sareen existentzia, ekipamendu eta zerbitzu publikoak, eraikinaren antzinatasuna, eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria eta higiezinaren egoerari buruzko informazioa jasotzen duten bestelako agiriak, etab.

Era berean, eskaintako higiezinaren Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria sartuko da, hala badagokio.

B gutun azalean aurkezten den dokumentazioan ez da inolaz ere eskaintzaren prezioa azalduko. Informazio hori A gutun azalean baino ez da jasoko.

### **Epea.**

Proposamenak 30 egun naturaleko epean aurkeztuko dira, iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta epea amaitzen den eguneko hamalau orduak eta hogeita hamar minutuak izan arte, salbu eta jaieguna bada; kasu horretan, hurrengo egun baliodunera arte aldatuko da.

### **8.3 Eskaintzak irekitzea, onartzea.**

#### B gutun azala

Kontratazio mahaiak irekiko du B gutun azala, jendaurreko ekitaldian, iragarkian adierazitako tokian eta orduan. Une horretan, mahaiak ezingo ditu bere gain hartu eskaintzak onartzeko epean entregatu ez diren dokumentuak.

Gutun azalak irekitzeko ekitaldi publikoan ez da onartuko ekitaldia eteten duen oharrik.

Aurkeztutako gutun-azalak ireki ondoren, proposamen ekonomikoko gutun-azalak alde batera utzita (A gutun azalak, ondoren berariazko ekitaldi batean irekiko direnak), mahaiak dokumentazioa aztertuko du eta zuzendu daitezkeen akatsak daudela ikusten badu, posta elektronikoz jakinaraziko du, gehienez ere 5 eguneko epean zuzenketak egin daitezzen. Epe hori igarotakoan, lizitatzailerak onartu egingo da, zuzenketak egin ezean izan ezik; kasu horretan, lehiaketatik kanpo geratuko da.

Lizitatzailerak emandako datuak erabiliz eta, egoki iritziz gero, bisitak egin ondoren, Arkitektura Zerbitzuak txosten bat egingo du. Txosten horretan, lehenik eta behin, adieraziko da lizitazioa aurkeztutako higiezinetak batek ez ote dituen betetzen plegu hauetako 2. puntuan onarpen baldintza gisa adierazitako onarpen baldintzak, eta, era berean, Txostenak baliozkotzat jotzen diren eskaintzak puntuatuko ditu, higiezinaren kokapenari eta ezaugarriei buruzko 8.4 paragrafoan zerrendatzen diren irizpideen arabera, eta lortutako puntuaren arabera ordenatuko ditu.

#### A gutun azala.

Aurreko paragrafoan adierazitako Arkitektura Zerbitzuaren txostena jaso ondoren, A gutun azala irekiko da, eskaintza ekonomikoa, ekitaldi publiko batean, eta Aldundiaren web orriaren bidez iragarriko da.

Eskaintza ekonomikoak ezagutu ondoren, puntuaziorik onena duen eskaintzaren aldeko esleipen proposamena egingo da, dagokion dokumentazioa eskatzeari kalterik egin gabe.

Proposamen ekonomikoren batek ez badu aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat egiten, lizitazioaren oinarriko aurrekontua gainditzen badu, ezarritako eredia nabarmen aldatzen badu,



eskaintzaren zenbatekoan akats material nabarmena eragiten badu edo lizitatzailleak hori bideraezina egiten duen errore edo funtsik eza aitortzen badio, mahaia baztertu egingo du.

#### **8.4 Esleitzeko irizpideak.**

Eskaintza onuragarriena egiten duen lizitatzailari esleituiko zaio, esleipen irizpideak aplikatuta lortutako puntu kopurua kontuan hartuta, egokitutako haztapenaren arabera.

Interes publikoko arrazoiak direla eta, Arabako Foru Aldundiak lizitazioa hutsik utzi ahal izango du.

Esleipen irizpideak honako hauek dira:

##### **8.4.1 Eskaintza ekonomikoa.**

Gehienez, 50 puntu.

Balorazio irizpidea honako formula honen arabera da:

$$Po = Pm * \frac{Pl - Of}{Pl - Oe}$$

Non hauexek diren:

Po = Lortutako puntuazioa

Pl = Lizitazioaren prezioa

Of = Egindako eskaintza

PM = Gehienezko puntuazio posiblea

Oe = Eskaintza merkeena

##### **8.4.2 Higiezinaren ezaugarriak**

Gehienez 35 puntu lor daitezke.

Eskaintzen den higiezin zehatzaren kalitate arkitektonikoa baloratuko da, honako hauei dagokienez: solairuaren antolaketa geometrikoa, orientazio mota, argiztapen naturala, fatxadaren erabilgarritasuna, kanpoko espazioarekiko lotura, aireztapen natural zein mekanikorako aukerak, espazioaren ezaugarriak bolumetriari eta barruko konpartimentazioari dagokienez, altuera, irisgarritasuna, aurreikusitako erabilera hartzeko egokitasun handiagoa, aurreikusitako erabilerarekiko eraberritze beharrak, kontserbazio egoera, eskuragarri dauden instalazioen zerbitzua, eraikinaren akaberak eta kalitatea, energia-eraginkortasuna eta kalitate arkitektonikoari dagokionez interesgarritzat jotzen den beste edozein faktore. Baloratuko da bi sarbide izatea.

##### **8.4.3 Udalerri barruko kokapena.**

25 puntu lortu ahal izango dira gehienez.

Baldintza agiri honen 2. paragrafoan aurreikusitako baztertze arrazoiari kalterik egin gabe, udalerri barruko kokapena baloratuko da, hiri bilbearekiko loturari dagokionez, garraio publiko bidez sarbide erraza eta guzti, ekipamenduak eta zerbitzuak egoteari dagokionez eta, bereziki, polizia etxe batetik hurbil egoteari dagokionez. Era berean, ingurunearen segurtasunari buruzko alderdiak baloratuko dira, hala nola, inguruan gaueko aisialdirako lokalik ez egotea edo sartzeko bidea zabala izatea, zokorik edo txokorik ez egotea, argiztapenik eza edo erabiltzaileentzat arriskutsua edo mesfidantza izan daitekeen beste edozein egoera.

Kokapenaren balorazioa:



Oso ona: 25 puntu.

Ona: 15 puntu.

Onargarria: 5 puntu.

### **8.5 Esleipena**

Lortutako puntuen baturaren arabera, eskaintza onuragarriena izango da esleipena.

Kontratua esleitzeko irizpideak aplikatu ondoren bi eskaintza edo gehiagoren artean berdinketa gertatuz gero, berdinketa hausteko irizpideak ebazteko, beste eskaintza bat eskatuko zaie lizitatuzaileei, eta, beste balorazio bat egin ondoren, pleguan ezarritako irizpideen arabera puntuaziorik onena lortzen duena izango da esleipendun. Beste berdinketa bat gertatuz gero, zozketa bat egingo da eta lizitatuzaileak bertara deituko dira.

Berdinketa hausteko irizpideak egiaztatzen dituzten agiriak berdinketa gertatzen den unean aurkeztuko dira, eta ez aldez aurretik.

Esleipen proposamenak ez dio inolako eskubiderik ematen proposatutako lizitatuzaileari.

### **9. Proposamenak baloratzeko mahaia.**

Balorazio mahaia honako hauek osatuko dute:

- Lehendakaria: Finantza eta Aurrekontuen zuzendaria
- Kideak: Ondare Zerbitzuko burua  
Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Kontratazio eta Araubide Juridikoaren Arloko zuzendariorde teknikoa  
Arkitektura Zerbitzuko burua  
Esku hartze Zerbitzuko burua
- Idazkaria: Ondare Zerbitzuko teknikari letradua, idazkari lanak egingo dituen.

Kasu guztietan beste pertsona bati eskuordetu ahal izango zaio ordezkari.

### **10. Dokumentazioa eskatzea.**

Mahaiaren proposamena ikusita, eskaintzak sailkatu ondoren, proposatutako lizitatuzaileari 10 egun balioduneko epean honako hauek aurkezteko eskatuko zaio:

- a) Ogasun Sailak eta Gasteizko Udalak emandako ziurtagiri positiboa, zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.
- b) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak emandako ziurtagiri positiboa (jatorrizkoa, notarioaren testigantza, kopia edo agiri egiaztagarria, kodetze informatikoaren edo CSVren bidez), sektore publikoarekin kontratatzekeo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena, SPKLren 71.1 artikuluaen arabera.
- c) Nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna egiaztatzea: pertsona fisikoen kasuan, eskaintzaren sinatzailearen NAN edo haren ordezkari agiri. Atzerritarren kasuan, AIZ. Pertsona juridikoen kasuan, jarduteko gaitasuna Merkataritza Erregistroan inskribatutako eraketa eta aldaketa eskrituraren kopiaren bidez egiaztatuko da, baldintza hori aplikatzeko den merkataritza legeriaren arabera eska daitekeenean. Ezin bada inskripzioa eskatu, eraketa eskrituraren edo agiriaren, estatutuen edo sortze aktaren kopiaren bidez, eta IFKren bidez. Ordezkaritzaren bidez jarduten bada, ordezkariaren NANa





aurkeztu beharko da, edo, atzerritarra bada, baliokidea, eta inskribatutako ordezkari ahalordearen kopia, araudiak hala eskatzen badu. Foru Aldundiko Idazkaritzak askietsi beharko dut ahalordea.

Espainiarrak ez diren EBko estatu kideetako enpresen kasuan, SPKLren 84.2 artikuluan xedatutakoa beteko da. EBko kide ez diren estatu etako atzerriko enpresen kasuan, SPKLren 84.3 artikuluan xedatutakoa beteko da.

d) Kaudimena egiaztatze agiriak:

- Higiezinaren jabearen identifikazioa, eskuratzeko eskritura publikoaren kopiaren eta Jabetza Erregistroaren ziurtagiriaren bidez. Ziurtagiri horretan, higiezina behar bezala inskribatuta agertzen da, saltzailearen izenean, eta ez du kargarik.
- Higiezinaren katastro ziurtagiri deskribatzailea eta grafikoa.
- Titularraren erantzukizunpeko adierazpena, jabetza eskrituran eta erregistro ziurtagirian adierazitako inguruabarrei eusteari buruzkoa.
- Higiezina errentamenduetatik, okupatzaileetatik edo prekaristetatik libre dagoela dioen erantzukizunpeko adierazpena.
- Idazkariaren ziurtagiria, Jabeen Erkidegoko lehendakariaren oniritziarekin, higiezinak erkidego kuota eta gastuak egunean dituela egiaztatzen duena.
- Erantzukizunpeko adierazpena, higiezinak mota guztietako horniduren eta estatuko, tokiko edo autonomia erkidegoetako zerga eta tasen ordainketak egunean dituela adierazten duena.
- B gutun azala aurkeztuta aurkeztu ez bada, indarrean dagoen eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria.

E) Interes Gatazkarik ez dagoela deklarazioa. 4. Eranskina

f) Datuen lagapenaren eta tratamenduaren adierazpena, berreskuratze, eraldaketa eta erresilientzia planeko (BEEP) jarduketak gauzatzeari dagokionez. 5. Eranskina

g) Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (BEEP) jarduketak gauzatzeari buruzko konpromisoaren adierazpena. 6. Eranskina

h) 8. eranskina, HFP/1030/2021 eta HFP/1031/2021 arauetan jasotako gauzatze baldintzei buruzkoa. Errekerimendua adierazitako epean behar bezala betetzen ez bada, lizitatuak eskaintza erretiratu duela ulertuko da. Dokumentazioa osatu gabe edo zuzentzeko moduko akatsekin aurkeztu bada, 3 egun balioduneko epea emango zaio lizitatuari, zuzen dezan. Hala egiten ez bada, eskaintza erretiratu duela ulertuko da, eta dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatuari, eskaintzen sailkapen hurrengoaren arabera.

## **11. Esleipen proposamenaren ondorioak, uko egitea eta atzera egitea.**

Kontratua esleitu aurretik, organo eskudunak, interes publikoko arazoak direla eta, uko egin ahal izango dio kontratua egiteari. Esleipenaren aurretik prozeduran atzera egin ahal izango du, halaber, prozedura erregulatzen duten arauetan zuzengarria ez den arau hausteren bat hautematen bada.

Esleipenerako proposatutakoak bere proposamenari uko egiten badiu, edo 10. paragrafoan ezarritako moduan eskatutako dokumentazioa aurkeztu ez bada, jarritako fidantza galduko du eta Mahaiak proposamena aurkeztu ahal izango dio hurrengo eskaintzari, puntuazioaren arabera.



## **12. Kontratua esleitzea.**

Esleipena organo eskudunaren ebazpen bidez erabakiko da, 10. atalean aurreikusitako lizitatzailleak dokumentazioa aurkeztu ondoren eta esleipen proposamena egin ondoren.

Kontratazio mahaiak proposatutako esleipendunarekin ezin bada esleipena formalizatu, aurreikusitako zigorrak ezartzeaz gain, hurrengo lizitatzailleak esleitu ahal izango du kontratua.

## **13. Kontratua formalizatzeko epea.**

Nahitaezkoa izango da higiezina eskritura publikoan formalizatzea, izendatzen den notariotzan, eta Jabetza Erregistroan inskribatzea. Horretarako, esleipendunak dagokion notariotzan errekerimenduan adierazitako tokian, egunean eta orduan parte hartu behar du. Agertu ezean, ezinbesteko kasuetan izan ezik, esleipendunak eskaintza erretiratuko du, eta hurrengoari eskatuko zaio, eskaintzen sailkapen hurrenkeraren arabera.

## **14. Eskuraketaren baldintzak.**

Ondasuna kargarik, errentamendurik eta okupatzailearik gabe eskuratuko da, plegu honen arabera esleipen prezioan. Halakorik badago, esleipena ondoriorik gabe geratuko da.

Erosle gisa, Foru Aldundiak ebikzio eta saneamendurako eskubidea izango du.

## **15. Ondasuna entregatzea.**

Saltzailea behartuta dago eskuratu beharreko finka entregatzera eta saneatzera, Kode Zibilaren 1.461. artikulua eta hurrengoan arabera. Saldutako gauza salerosketako eskritura publikoa sinatzen den unean entregatu dela ulertuko da, orduan entregatuko baita gauza horren edukitza giltzak emanez. Salerosketaren ondoreak eta azkentzea aplikatzekoak zaizkion zuzenbide pribatuko arauen arabera arautuko dira, bere izaeraren arabera.

## **16. Prezioa ordaintzea.**

Eskritura publikoak izenpetzen diren unean egingo da ordainketa.

## **17. Gastuak**

Salerosketari dagozkion zergak ordaindu beharko dira, hala nola hiri lurren balio igoera, ondare eskualdaketen gaineko zerga edo, hala badagokio, BEZa, eta indarrean dagoen legeriaren arabera ordainduko dituzte alderdiek.

Salerosketak sortzen dituen notario eta erregistro gastuak Arabako Foru Aldundiak ordainduko ditu.

## **18. Kontratua suntsiaraztea.**

Kontratua suntsiarazteko kausak izango dira agiri honetan aurreikusitako betebeharrak ez betetzea eta, bereziki, kargak egotea, nahiz eta erregistroko ziurtagirian ez agertu eta horretarako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu; eta higiezinean errentariak, gozamedunak, okupatzaileak eta prekaristak egotea, titulu gaitzailearekin edo titulurik gabe, nahiz eta erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu halakorik ez dagoela adieraziz, baita ezkutuko akatsak egotea eta Kode Zibilean higiezin salerosketa-kontratuari buruz aurreikusitakoak ere.

Kontratua suntsiarazten bada, hurrengo lizitatzailari esleituko zaio, eskaintzak sailkatuta dauden hurrenkeraren arabera.



Kasu horietan guztietan, kalte galeren kalte ordain gisa, Arabako Foru Aldundiak ordura arte bere gain hartutako gastu guztien zenbatekoa ordainduko du kontratistak, bai eta gastu guztien zenbatekoaren ehuneko 20ko zigorra ere, kalte galerengatik.

### **19. Erantzukizunak**

Kontratistak Arabako Foru Aldundiaren aurrean erantzungo du bere betebeharrak behar bezala betetzeaz, bai eta ez egiteek, metodoek, balorazioek, adierazpenek, txostenek edo ondorio okerrekin Arabako Foru Aldundiarentzat edo hirugarren pertsona edo erakundeentzat izan ditzaketen ondorioez ere.

### **20. Arabako Foru Aldundiaren prerrogatibak.**

Kontratazio organoak honako prerrogatiba hauek ditu: kontratuak interpretatzea, kontratuak betetzean sortzen diren zalantzak ebaztea, interes publikoko arrazoiengatik kontratuak aldatzea, kontratua gauzatzearen ondorioz kontratistari egotz dakioken erantzukizuna deklaratzeko, uko egitea, atzera egitea, kontratua suntsiaraztea erabakitzea eta suntsiaraztearen ondorioak zehaztea.

### **21. Datuen tratamendua eta konfidentziasun betebeharra.**

Kontratistak errespetatu egin beharko du kontratuaren exekuzioaren ondorioz eskuratzen duen informazioaren konfidentziasuna, baldin eta baldintza agirietan edo kontratuan aipatutako izaera badu, edo, bere izaera dela eta, hala tratatu behar bada. Betebehar hori ezarritako 5 urteko epean mantenduko da, eta langileei egoera horren berri eman beharko zaie, ez betetzeak eragin ditzakeen kalte galeren erantzule izanik. Ezin izango da zabaldu enpresaburuek konfidentzial izendatu duten informazioa, kontratazio organoak hala erabaki badu. Horretarako, lizitatzailleek gutun azal bakoitzean konfidentziasuna proposatzen duten agirien zerrenda sartu beharko dute, izaera horren arrazoia azalduz.

Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa beteko da, berekin dakartzaten betebeharrekin eta aplikatzekoak diren gainerako arauekin, eta, bereziki, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kontura finantzatutako jarduketetarako aurreikusitakoa.

### **22. Baldintzarik gabeko onarpena.**

Proposamenak aurkezteak esan nahi du lizitatzailleak baldintzarik gabe onartzen dituela baldintza agiri honetako klausula edo baldintza guztiak, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe.

Gasteiz, 2022ko apirila



## 1. ERANSKINA

### GASTEIZEN GIZARTE ARRETAKO 24 ORDUKO KRISI ZENTRORAKO LOKAL BAT EROSTEKO PROZEDURAN PARTE HARTZEKO ESKABIDE EREDUA.

\_\_\_\_\_ jauna/andrea, adinez nagusia (NAN zk.: \_\_\_\_\_; jakinarazpenetarako helbidea: \_\_\_\_\_), bere izenean (edo \_\_\_\_\_ren ordezkari gisa, enpresaren IFK \_\_\_\_\_), gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa duena, eta Arabako Foru Aldundiak Gasteizen lokal bat erosteko deitutako lizitazioaren berri duena.

Adierazten du:

1. Baldintza agirian eskatzen diren baldintza guzti guztiak betetzen dituela.
2. Erabat ezagutzen eta onartzen dituela baldintza agiriko klausula guztiak eta gainerako kontratu agirietatik eratortzen diren gainerako betebeharrak guztiak, kontratuaren esleipenduna izanez gero. Adierazten du eskaintza hau aurkezteak berekin dakarrela lizitazio hau arautzen duten baldintza guztiak baldintzarik gabe onartzea.
3. Ondoko higiezinaren salerosketa egiteko konpromisoa hartzen dut:

Lokalaren kokapena: ..... Honela identifikatua: ..... Azalera:.....

Data eta aitortzailearen sinadura eta, hala badagokio, enpresaren zigilua.



## 2. ERANSKINA

### ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

Jn./and. honek, ....., Nortasun Agiri Nazionala duenak

(.....), bere izenean edo

.....ren ordezkartzan, honako IFZ hau izanik (.....) ..... den aldetik

Harremanetarako datuak: Udalerria....., helbidea....., posta

kodea....., telefonoak....., eta posta elektronikoa.....

#### NEURE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DUT:

1. Administrazioarekin eta horien mendeko organismo, erakunde publiko eta sozietateekin kontratuak egiteko legez ezarritako baldintza guztiak betetzen ditudala, bai eta Arabako Foru Aldundiak Gasteizen lokal bat erosteko deitutako lizitazioa arautzen duten baldintza bereziak ere, ez bainago SPKLren 71. artikuluan araututako kontratatzekeo debeku eta bateraezintasunen inolako kausatan sartuta, ez eta Arabako Foru Aldundiarekin kontratatzekeo bateraezintasunean ere. Halaber, esleipendun gisa proposatuz gero, inguruabar horiek egiaztatzekeo konpromisoa hartzen dut, baldintza-agirian aipatzen diren administrazio-agiriak eta, hala badagokio, preskripzio teknikoak aurkeztuz, bai eta lizitazio hau arautzen duen beste edozein agiri ere.

Era berean, erantzukizunez deklaritzen dut:

2. Sozietatea balio osoz eratuta dagoela, hala badagokio.

3. Adierazten dut eskaintza eta adierazpen hau sinatzeko beharrezko gaitasuna dudala, eta, hala badagokio, adierazpenaren sinatzaile gisa, proposamena aurkezten duen sozietatearen ordezkartza egokia dudala, eta botereak indarrean daudela.

4. Ordezkatzen dudan sozietateak (edo adierazpenaren sinatzaileak, bere izenean diharduenean) baldintza agirian eskatutako kaudimen baldintzak betetzen dituela, eta, hala badagokio, jarduera gauzatzeko behar diren baimenak dituela.

5. Ordezkatzen dudan sozietateak (edo adierazpenaren sinatzaileak, bere izenean diharduenean) ez duela kontratatzekeo debekurik, ez bere kabuz ez hedaturaz, SPKLren 71.3 artikulua aplikatzearen ondorioz, eta, berariaz, egunean dituela indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta konpromisoa hartzen duela baldintza horiek betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezteko, kontratua esleitu aurretik.

6. Eskaintako higiezinak ez duela kargarik edo zamarik, ez errentaririk, ez okupatzailerik, ez prekaristarik, titulu gaitzailearekin edo gabe, eta baldintza ezin hobeak betetzen dituela erosteko formalizazioa egin eta berehala, higieze- eta garbiketabaldintza egokietan.

7. Higiezinaz Jabetza Erregistroan inskribatuta dago, lizitatzailerik den pertsonaren edo pertsona natural edo juridikoen izenean, bai eta berehala eskribatzea ahalbidetzen duten baldintza juridikoetan ere. Erregistroko eragiketaz egin behar izanez gero, hala nola elkartzeko edo bereizteko, kontratua esleitu edo formalizatu aurretik egiteko konpromisoa hartzen dut, eta, hala badagokio, Jabetza Erregistroan inskribatzeko.

8. Higiezinak egunean ditu erkidego-gastuak, hornidura guztiak, hala badagokio, eta baita hura zergapetzen duten zergak ere, bereziki, OHZ eta hiri hondakin solidoak biltzeko tasa.



9. Erosketan zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen naiz, eta, hala badagokio, lizitatzaileri legokiokeen atzerriko foruari uko egiten diot.

10. Jakinarazpenak egiteko, honako helbide elektroniko hau izendatzen dut:  
.....

Data eta aitortzailearen sinadura eta, hala badagokio, enpresaren zigilua.



### **3. ERANSKINA**

#### **HIGIEZINERA SARTZEKO BAIMENA**

\_\_\_\_\_ jauna/andrea, adinez nagusia (NAN: \_\_\_\_\_) eta jakinarazpenetarako helbidea

\_\_\_\_\_, norberaren izenean (edo

Enpresaren IFK duen \_\_\_\_\_-ren ordezkaritza

\_\_\_\_\_), gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa izanik, jakinaren gainean egonik,

Arabako Foru Aldundiak Gasteizen lokal bat erosteko deitutako lizitazioa deitu duela

#### **OHARTARAZTEN DUT:**

Berariaz BAIMENA EMATEN DIET Arabako Foru Aldundiko langileei edo hark eskuordetzen ditueni proposaturiko higiezinaren gela guztietara sartzeko, pleguan aurreikusitako ondorioetarako, egoki irizitako aldi guztietan, aldez aurretik jakinarazita.

Data eta aitortzailearen sinadura eta, hala badagokio, enpresaren zigilua.



#### **4. ERANSKINA.**

#### **INTERES GATAZKARIK EZ DAGOELA DIOEN ADIERAZPENAREN EREDUA (IGEA)**

#### **GASTEIZEN GIZARTE ARRETAKO 24 ORDUKO KRISI ZENTRORAKO LOKAL BAT EROSTEKO PROZEDURA.**

Goian aipatutako kontratazio/dirulaguntza prozeduran inpartzialtasuna bermatzeko, behean sinatzen dutenek, espedientea esleitzeko prozesuan parte hartzaile esleipendun gisa, honako hau adierazten/adierazten dute:

Lehen. Honako honen jakitun dagoela/daudela:

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduak (EBren Finantza Erregelamendua) 61.3 artikuluan («Interes-gatazka») ezartzen duenez, «interes-gatazka egongo da funtzioen egikaritze inpartziala eta objektiboa arriskuan jartzen denean familia arrazoiengatik, arrazoi afektiboengatik, kidetasun politiko edo nazionalengatik, interes ekonomikoengatik edo interes pertsonaleko zuzeneko nahiz zeharkako edozein arrazoiengatik».

2. Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 64. artikulua («Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa») helburu hau du: lehiaren distortsio oro saihestea eta prozedura gardena dela eta hautagai eta lizitatzailerik guztientzat tratua berdina dela bermatzea.

3. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan («Abstenitzea») ezartzen da prozeduran esku hartzetik abstenitu beharko direla «administrazioetako agintari edo langileak, hurrengo zenbakian aipaturiko egoeretakoren batean daudenean». Honako hauek dira egoera horiek:

a. Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo besteren batean, baldin eta azken horren ebazpenak lehenari eragin badiezaioke; sozietate edo entitate interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.

b. Ezkontza lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta laugarren mailara arteko odol ahaidetasuna edo bigarren mailara arteko ezkontza-ahaidetasuna izatea interesdunetako edozeinekin, entitate edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere; bai eta haien bulego profesional berekoa izatea edo haiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkaritza edo mandataritzarako.

c. Aurreko letran aipaturiko pertsonetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.

d. Dagokion prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartua izatea.

e. Gaian zuzeneko interesa duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu harremana izatea edo pertsona horri, azken bi urteetan, zerbitzu profesionalak eskaini izana, edozein motatakoak eta edozein baldintza eta tokitan.

Bigarrena. Ez nagoela EBren Finantza Araudiaren 61.3 artikuluan adierazitako interes gatazkatzat jo daitekeen ezein egoeratan, eta ez dagoela lizitazio/emakida prozedurari eragin diezaiokeen Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluko abstentzio kausarik.





Hirugarrena. Konpromisoa hartzen dudala kontratazio organoari/ebaluazio batzordeari jakinarazteko, luzamendurik gabe, interes gatazkako edozein egoera edo abstentzio kausa, egoera hori sortzen duena edo eragin dezakeena.

Laugarrena. Badakidala interes gatazkarik ez dagoela dioen adierazpena faltsua dela frogatzen bada, aplikatu beharreko araudiak ezartzen dituen diziiplina ondorioak, ondorio administratiboak eta judizialak ekarriko dituela.

(Data eta sinadura, izen-abizenak eta NANA)



## 5. ERANSKINA.

### DATUAK LAGA ETA TRATATZEKO ADIERAZPENAREN EREDUA, BERRESKURATZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANEKO (BEEP) JARDUERAK GAUZATZEARI DAGOKIONEZ

..... jaun/andrea (NAN: .....),  
..... erakundearen kontseilari  
ordezkari/gerente gisa (IFZ: ...) eta egoitza fiskala  
.....izanik,

BEEPetik datozen baliabideekin finantzatutako laguntzen onuraduna da / kontratista/azpikontratista gisa parte hartzen du 22. osagaien (“zaintzen ekonomiarako talka-plana eta berdintasun eta inklusio politiken indartzea») eta C22.I4 neurrian (Espainiako Planak indarkeria matxistaren aurka babesteko) zehaztutako helburuak lortzeko beharrezko jardueren garapenean, eta aplikatzekoa den araudia ezagutzen duela adierazten du, bereziki Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22. artikuluko hurrengo atalak, 2021eko otsailaren 12koa, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena:

1. 2. atalaren d) letra: “Berreskuratze eta erresilientzia planaren barruan erreformak eta inbertsio proiektuak egitera bideratutako neurriei dagokienez, funtsen erabileraren auditoria eta kontrola egiteko, datu hauen kategoria harmonizatuak biltzea, bilaketak egiteko aukera ematen duen formatu elektronikoa, eta datu base bakarrean:

i. Funtsen azken hartzailearen izena;

ii. kontratistaren eta azpikontratistaren izena, funtsen azken hartzailea botere adjudikatzailea bada Batasuneko edo estatuko kontratazio publikoaren arloko zuzenbidearekin bat etorrita;

iii. funtsen hartzailearen edo kontratistaren benetako titularren izen-abizenak eta jaiotegunak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikulua 6. puntuan zehazten denaren arabera (26);

iv. suspertze eta erresilientzia planaren barruan erreformak eta inbertsio proiektuak egitera bideratutako neurrien zerrenda, neurri horien finantzaketa publikoaren zenbateko osoarekin batera. Mekanismoaren esparruan ordaindutako funtsen eta Batasuneko beste funts batzuen zenbatekoa zehaztu behar da.

2. 3. atala: “Artikulu honetako 2. paragrafoko d) letran aipatutako datu pertsonalak estatu kideek eta Batzordeak baino ez dituzte tratatuko, aurrekontu kudeaketa onartzeko auditoretzaren eta 15. artikulua 2. paragrafoko eta 23. artikulua 1. paragrafoko akordioak aplikatzearekin zerikusia duten funtsen erabilerarekin zerikusia duten kontrol prozeduren ondoretarako eta iraupenerako. Batzordearen kudeaketa onartzeko prozeduraren esparruan, EBFTren 319. artikuluaekin bat etorritik, Mekanismoak txostenak aurkeztu beharko ditu Finantza Erregelamenduaren 247. artikulua aipatzen duen finantza informazioaren eta kontu-emate integratuaren esparruan, eta, batik bat, bereizita, kudeaketari eta errendimenduari buruzko urteko txostenean”.

Azaldutako esparru juridikoa dela bide, adierazten du baimena ematen duela datuak lagatzeko eta tratatzeko, aipatutako artikuluetan berariaz jasotako xedeetarako.

202Xko XX (a) ren XX (e) (a)n

Sin.: .....

Kargua: .....



## 6. ERANSKINA.

### **KONPROMISO ADIERAZPENAREN EREDUA, BERRESKURATZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANEKO (BEEP) JARDUERAK GAUZATZEARI DAGOKIONEZ**

..... jaun/andrea (NAN: .....),  
..... erakundearen kontseilari  
ordezkari/gerente gisa (IFZ: ...) eta egoitza fiskala  
..... izanik,

.....BEEPetik datozen baliabideekin finantzatutako laguntzen organo arduraduna/organo kudeatzailea/onuraduna denez/enkarguaren kontratista/erakunde hartzaile/azpikontratista gisa parte hartzen du, 22. osagaien (“zaintzaren ekonomiarako talka-plana eta berdintasun eta inklusio politiken indartzea”) C22.I4 neurrian (Espainiako Planak indarkeria matxistaren aurka babesteko) zehaztutako helburuak lortzeko beharrezko jardueren garapenean, eta adierazten du ordezkatzeko duen pertsonak/erakundeak estandar zorrotzenekin duen konpromisoa, arau juridikoak, etikoak eta moralak betetzeari dagokionez, eta beharrezko neurriak hartzen ditu iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko eta antzemateko, eta, hala badagokio, agintariei jakinarazten dizkie ikusitako ez-betetzeak.

Horrez gainera, BEEPekin bat etorriz, konpromisoa hartzen du ekonomia zirkularraren printzipioak errespetatzeko eta ingurumenari kalte handirik ez egiteko (ingelesezko siglak: «DNSH, do no significant harm») plan horren esparruan egiten diren jarduketetan, eta adierazten du ez dagoela finantzaketa bikoitzik edo, halakorik badago, berak dakienaren arabera ez dagoela bateraezintasunik estatu laguntzen araubidearekin.

202Xko XX (a) ren XX (e) (a)n

Sin.: .....

Kargua: .....



## 7. ERANSKINA

### ESKAINITZA EKONOMIKOAREN EREDUA

\_\_\_\_\_ jauna/andrea, adinez nagusia (NAN zk.: \_\_\_\_\_;  
jakinarazpenetarako helbidea: \_\_\_\_\_)

, bere izenean (edo \_\_\_\_\_ren ordezkari gisa, enpresaren IFK \_\_\_\_\_),

gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa duena, eta Arabako Foru Aldundiak

Gasteizen lokal bat erosteko deitutako lizitazioaren berri duena,

#### **OHARTARAZTEN DU:**

Ondoko higiezinaren salerosketa egiteko konpromisoa hartzen dut:

Lokalaren kokapena: .....; azalera:.....; prezioa:.....(letretan),  
..... (zenbakitan) Identifikazioa:.....; azalera:.....;

BEZaren zenbatekoa zifra horren barruan dago. Aplikatu behar izanez gero, honako hau izango da  
zenbatekoa:..... (letraz),.....(zenbakiz)

Data eta aitortzailearen sinadura eta, hala badagokio, enpresaren zigilua.



## 8. ERANSKINA

**EXEKUZIO BALDINTZAK, HONAKO HAUEK APLIKAGARRI IZATEAREN ONDORIOZKOAK: HFP/1030/2021 AGINDUA, IRAILAREN 29KOA, ZEINAREN BIDEZ SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANA KUDEATZEKO SISTEMA ERATZEN BAITA, ETA HFP/1031/2021 AGINDUA, IRAILAREN 29KOA, ZEINAREN BIDEZ EZARTZEN BAITIRA SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN OSAGAIETAKO NEURRIEN ZEDARRI ETA HELBURUAK BETETZEAREN ETA AURREKONTU ETA KONTABILITATE EXEKUZIOAREN JARRAIPENERAKO ESTATU, AUTONOMIA ETA TOKI SEKTORE PUBLIKOKO ENTITATEEK EMAN BEHARREKO INFORMAZIOAREN PROZEDURA ETA FORMATUA.**

1.- Kontratu honi aplikatzekoa zaio Arabako Foru Aldundiaren iruzurraren aurkako neurrien plana, suspertze eta erresilientzia mekanismoaren bidez (Next Generation EB funtsak) kofinantzatutako eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean jasotako proiektuen kudeaketari dagokionez (Gobernu Kontseiluaren 2021eko abenduaren 28ko 825 Erabakiaren bidez onetsi zen plan hori).

2. Enpresa kontratista adjudikaziodunak bete beharko ditu etiketatze berde eta digitaleko eginbeharrak, eta errespetatu beharko ditu ekonomia zirkularraren printzipioak eta ingurumenean eragin kaltegarri esanguratsuak ekiditeko printzipioak, ezartzen diren kontrol mekanismo guztiei men eginez.

3.- Enpresa kontratista adjudikaziodunak eta kontratua gauzatzen harekin elkarlanean aritu behar duten enpresa azpikontratistek bete beharko dituzte HFP/1030/2021 Aginduaren 8.2. artikuluan ezarritako informazio eginbeharrak, eta izenpetu beharko dituzte interes gatazkarik ezaren aitortpena, datuak laga eta tratatzeko aitortpena Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko (SEEP) jarduketan exekuzioa dela-eta, eta konpromiso aitortpena Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko (SEEP) jarduketan exekuzioa dela-eta.

4.- Enpresa kontratista adjudikaziodunak eta kontratua gauzatzen harekin elkarlanean aritu behar duten enpresa azpikontratistek behartuta egongo dira funtsen azken hartzaileei buruzko informazioa ematera HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikuluan ezarritako moduan.

5.- Enpresa kontratista adjudikaziodunak bete beharko ditu HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikuluan informazio arloan ezartzen diren konpromisoak.

6.- Kontratu hau gauzatzean, enpresa kontratista adjudikazioduna Europako Batzordearen, Iruzuraren aurkako Bulegoaren, Europako Kontu Epaitegiaren eta Europako Fiskaltzaren kontrolei loturik egongo da, eta haiek kontratuaren inguruko edozein informazio lortzeko eskubidea izango dute.

7.- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduak, Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikagarriak zaizkien finantza arauak buruzkoak, 132. artikuluan dokumentazioa gordetzeari buruz jasotzen dituen arauen pean egongo da enpresa kontratista adjudikazioduna.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko .....ren .....(a)

Enpresaren izenpea